



BILBO eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren HEDATZEA

Urteak daramagu gure burua prestatzen, frogak egiten, proiektuak sendotzen. Milaka ekimen, bizitzaren esparru guztietan, gero eta pertsona gehiagorengatik babestuak, egunero frogatzen dute beste ekonomia bat, beharrezkoa izateaz gain, posiblea dela. Saltoa emateko garaia heldu da, alternatiba bat garelako pentsatzeari utziz eta errealitate berri bat bezala eratuz. Ekonomia sozial eta solidarioaren hedapenaren garaia da.

Ongi etorriak kongresura!

Bilbo, 2016ko azaroak 7.

2016ko azaroaren 10etik 12ra, eta 2014an Zaragozan ospatutako I Kongresuaren lekukoa hartuz, Bilboko hiriak **Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II. Kongresua** hartuko du, "Ekonomia Sozial eta Solidarioaren hedatzea. Ekonomia eraldatzeko garaia da!" lelopean.

Ekitaldiak, 30 jardueratik gora jasoko dituen eta 400 pertsona baino gehiago biltzea espero duena, **Bizkaia Aretoan** ospatuko da, UPV/EHUko azpiegitura, eta bere kokapenari eta unibertsitate munduarekin duen harremanari esker, gaur egungo sistema sozioekonomikoari egunero alternatiba erreal bat praktikatzeko duten ekonomia solidarioko esperientziak gerturatzeko posiblea da.

REAS Euskadik, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea, **REAS Red de Redes** eta **Euskal Herriko Unibertsitatearekin** batera, ekonomia solidarioaren mugimenduaren gertaerarik garrantzitsuen den jardunaldi hau antolatzen du, Bilboko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin.

Hedapenaren ideian oinarrituz, kongresua **publiko anitz** batera zuzendua dago: ekonomia sozial eta solidarioko erakundeak eta euren langile eta boluntarioak, politika publikoak kudeatzen dituzten kargu publiko eta teknikariak, ekintzaileak, unibertsitate-ikasle eta irakasleak, banakako zein taldekako kontsumitzaileak eta, orokorrean, ekonomia sozial eta solidarioaren erronka eta etorkizuneko aukerei buruz mintzatu eta hausnartu nahi duen edozein pertsona.

Hiru osoko bilkura izango dira parte-hartzaileei esperientzia inspiratzaileak gerturatuko dizkietenak, izenburu hauek daramatelarik: *“De la economía solidaria al postcapitalismo: posibilidades, desafíos y falsas promesas”* **César Rendueles**-ekin, *“Retos y potencialidades del despliegue de la ESS”* **Magdalena León** (Ekuador) eta **Jean Louis Laville**-n (Frantzia) kargu eta, bukatzeko, *“Hazañas de los malos tiempos”*, **Cristina Morano** idazle eta aktibistaren esku.

Aktibitateak publiko mota eta sakontze maila guztientzat pentsatuta daude, edukiak interesgarriak izan daitezen bai lehenengo aldiz ESSra hurbiltzen diren pertsonentzat, baita zenbait gai sakonki landu nahi dituztenentzat. Guzti hau, **existitzen diren ekonomia sozial eta solidarioko sareak sendotzeko** helburua duelarik.

Jarduera hauek, **sei ardatz tematikoetan** biltzen diren hitzaldi eragingarriak, mahai-inguruak eta lanketa kolektiborako tailerrak dira, eta hauetan, **30 hizlari baino gehiagok** parte hartuko dute:

1. Ekonomia inklusibo eta demokratikoa
2. Ekonomia solidarioa izango da feminista baldin bada
3. Potentzia eta mugak gaindituz. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ehun produktiboaren eratze, garapen eta eraldaketa.
4. Ondasun komunak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa
5. Herritarren bat-egitea eta Ekonomia Solidarioa: egitura kooperatibo zabalak, ESSaren eraikuntzan
6. Trantsizioak mundu iraunkorrago bateko ekonomia berrietarantz

Bestalde, ekonomia sozial eta solidarioko entitateak, **topaketarako aukerak** izango dituzte Meeting, Elkarrizketak, ESSKutxa edo itxiera jaia bezalako espazioetan, elkar ezagutza eta lankidetzazko momentuak izango baitira.

Informazio gehiago:

www.esskongresua.net

komunikazioa@reaseuskadi.net

652 740 146

Amaia Naveda Sáenz de Ugarte (REAS Euskadi)